



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK, COVID-19ARI AURRE EGITEKO ALDUNDIAK INDARREAN JARRI DITUAN NEURRI FISKALAK BERRETSI DITUE

- Ogasun eta Finantzetako Batzordeak kontrako boto barik onetsi dau Covid-19aren ondorioz sortutako preminazko zerga neurrien ganeko martiaren 17ko Foru Dekretu Arauemoilea.
- EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia, abstenidu egin diran arren, ez dira ados agertu jokoaren ganeko zergetatik sortutako zorrak atzeratzea planteetan dauen artikulua gaz.
- Bizkaiko Batzarrek Bilboko egoitza administratiboan egiten ebezan saioak berreskuratu ditue, alderdi politikoen ordezkarien partaidetza murriztuagaz, osasun arloko segurtasun neurriak beteten dirala bermatzeko.

(Bilbon, 2020ko maiatzaren 4an). Martiaren 16tik egoitza administratiboan egin daberen lehenengo saioan, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Covid-19aren krisiari aurre egiteko Aldundiak aurkeztu daberen zerga arloko preminazko neurrien ganeko Foru Dekretua berretsi dabe. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia (PP) taldeen aldeko botoakaz eta EH Bilduren eta Elkarrekin Bizkaiaeren abstentzinoagaz, Aldundiak bidea libre dauka Alarma Egoerea hasi eta segiduan koronabirusak ekonomian sortutako eragin negatiboari erantzutera bideratu ziran neurrien lehenengo paketea apliketako.

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez, zerga arloko neurriak Bizkaiko personeren “likidezia hobetzerá” dagoz zuzenduta, “mikro-enpresena, enpresa txiki eta ertainena eta autonomoena”, batez be, eta baita ekonomian egoera zaurgarriagoan dagozan sektoreetan ekonomia arloko eragin negatibo handiagoa prebenitzera be. Zergen arloan daukazan eskumenen barruan, Aldundiak “mugatu, eten edo atzeratu” egin ditu martiaren 16tik bagilaren 1era bitartean sortu daitekezan zerga arloko betebeharrak, zergen ordaintzea edo auto-likidazioen eta aitortpenen aurkezpena, beste batzuen artean.

Foru dekretuak Batzarretako talde guztien aldeko botoak jaso ditu, baina oposizio taldeek ñabarduraren bat edo beste egin dabe. EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia ez dira ados agertu jokoaren ganeko zergetatik sortutako zorrak atzeratzea planteetan dauen 5. artikulua gaz. Talde bien eretziz, “ez da zuzena” jokoaren inguruko enpresa handiei aukera hori emotea. Jon Andoni



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Atutxa bozeroale jeltzaleak gero argitu dauenez, atzerapen hori, euren ostalaritzako establezimenduan jokorako makina bat daukien autonomoei kargak saihestera dago zuzenduta.

Talde Berezitik (PP), Amaya Fernández bozeroaleak adierazo dau neurri horreek “beharrezkoak” zirala lehenengo unean, “zergadunei ezer parkatzen ez jaken arren”. Dana dala, bere eretxiz une honetan “ez dira nahikoak” eta “ez ditue itxaropenak beteten”. “Zergen parkamen parzialak” planteau ditu, izan be, “diru-sarrerak zero badira, zergak be zero izan behar dira”.

Puntu horretan, batzordeak ez dau onetsi EH Bilduk egin dauen eskaria, berretsi dan dekretua Bizkaiko Batzarretan foru arau proiektu moduan tramitetako. Elkarrekin Bizkaiak aldeko botoa emon dau, PP abstenidu egin da eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoei esker, azkenean proposamena ez da onartu.

ALDUNDIAREN OBREN ATZERAPENA

Horren ostean, EH Bilduk eskatu dauen agerraldian, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak, COVID-19 birusak eragin dauen egoera dala eta indarrean jarriko diran beste neurri batzuk aurreratatu ditu. Gastuak murrizteko xedez, bere sailak alde batera itziko dauela Ogasuneko eraikina hobetzeko proiektua iragarri dau Iruarrizagak. Horrez gain, jakinarazo daunez, Aldundiaren Gobernu Kontsejuak neurri barriak jasoko dituan beste dekretu bat onetsiko dau bihar, eta Aldundiak “2021eko urtariletik aurrerako bigarren agertokia” planteauko dau. Agertoki horretan, “neurri estrukturalagoak” hasiko dira apliketan.

Lurraldeko “azpiegitura handien” proiektuen ganean galdetuta, Iruarrizagak adierazo dau Aldundia “ez dagola daborduko lizitautu dagozan azpiegituren inbertsinoak eteteko prest”, ezta Aldundiaren eretxiz “estrategikoak diran proiektuei” jagokozanak be, baina esan dau “beharbada” horreetako batzuk gauzatzeko epeak aztertu egin ahal izango dirala. Panoramak ez ditu beste alor batzuk kaltetuko. “Ez deusagu gizarte arloko gaietan gasteteari itziko”, adierazo dau. Ildo horretan, 2020ko aurrekontua “egokitzen” ari da daborduko, “Bizkaia Aurrera” ekimenean jasoten diran neurri ekonomikoen plana gauzatzeko eta Gizarte Ekintza Saila baliabidez hornitzeko, pandemiatik sortutako gastuei aurre egiten jarraitu daian. Ganera, Iruarrizagak adierazo dauenez, datorren urtetik aurrera Aldundia zorpetu egingo da, gastuen eta transferentzien atalari erantzuteko, Bizkaiko lehenengo eragina “1.500 milioi eurokoa” izango dala baieztu eta gero.

Horrez gain, batzordeak Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu taldeek adostu daberen arauz besteko proposamen transakzionala aztertu dau, Herri-Dirubideen Euskal



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Kontseilua “ahalik eta arinen” alkartu daiten, Covid-19a Euskadin sortzen ari dan krisi sakonari erantzuteko. Talde biek eskari honeek egin ditue: Aldundiak koronabirusaren “eraginaren” ganeko txostena aurkeztea Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean; eta Batzarretako taldeakaz eta gizarteko eragileakaz eta sindikatuakaz alkarrizketea hastea, “neurri eraginkorrakoak” planteetako, horreen artean “gastua bermatzeko diru-sarrerak zelan handitu, herritarren eskubideak murriztu barik”.

Arauz besteko proposamena ez da onetsi, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia (PP) taldeek kontrako botoa emon dabelako. Neurri “zehatzak eta estrukturalak hartzeko agertoki argiagoa euki behar dogu”, erantzun dau Ekain Rico sozialistak. “Garagarrilera arte” ez dogu argazki bat eukiko, zehaztu dau Jon Andoni Atutxak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RATIFICAN LAS MEDIDAS FISCALES DE LA DIPUTACIÓN FRENTE AL COVID-19

- **La Comisión de Hacienda y Finanzas aprueba sin votos en contra el Decreto Foral Normativo, del 17 de marzo, de medidas tributarias urgentes derivadas del Covid-19.**
- **EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, pese a abstenerse, muestran su desacuerdo con el artículo en el que se plantea el aplazamiento de las deudas derivadas de los tributos sobre el juego.**
- **El Parlamento de Bizkaia recupera las sesiones en su sede administrativa de Bilbao con una participación reducida de los representantes políticos para garantizar el cumplimiento de las medidas de seguridad sanitarias.**

(Bilbao, a 4 de mayo de 2020). En la primera sesión celebrada en la sede administrativa desde el 16 de marzo, las Juntas Generales de Bizkaia han ratificado el Decreto Foral Normativo de medidas tributarias urgentes para hacer frente a la crisis del Covid-19 presentado por la Diputación. Con el apoyo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Mixto (PP), y la abstención de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, la Diputación obtiene así vía libre para poder aplicar el primer paquete de medidas que pretendían responder al impacto económico negativo generado por el coronavirus nada más comenzar el Estado de Alarma.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha explicado que las medidas tributarias van dirigidas a “mejorar la liquidez” de las personas de Bizkaia, especialmente de “microempresas, pymes y trabajadores autónomos”, y a prevenir un impacto económico negativo mayor sobre los sectores más vulnerables de la economía. En el ámbito de sus competencias tributarias, la Diputación “limita, suspende o aplaza” obligaciones tributarias que pudieran generarse entre el 16 de marzo y el próximo 1 de junio, como el pago de impuestos o la presentación de autoliquidaciones y declaraciones.

El decreto foral ha recibido el respaldo de los grupos junteros, si bien con algunos matices de la oposición. EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han mostrado su desacuerdo con un punto del artículo 5 en el que se plantea la posibilidad de aplazar las deudas tributarias derivadas de los tributos sobre el juego. Ambas formaciones creen “injusto” que esta posibilidad se pueda ofrecer a grandes



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

empresas del juego. El portavoz jeltzale Jon Andoni Atutxa ha aclarado posteriormente que dicho aplazamiento va dirigido a evitar cargas a las personas autónomas que tienen una máquina de juego en su establecimiento hostelero.

Desde el grupo Mixto (PP), su portavoz Amaya Fernández ha mostrado su convencimiento de que estas medidas eran “necesarias” en un primer momento pese a “no perdonar nada a los contribuyentes”. Sin embargo, ve que ahora son “insuficientes” y “no cubren las expectativas”. Ha planteado “exoneraciones parciales de tributos”, ya que “a ingresos cero, impuestos cero”.

En este punto, la comisión ha rechazado la solicitud de EH Bildu para que el decreto ratificado se tramitara como proyecto de norma foral en la Cámara vizcaína. Elkarrekin Bizkaia ha votado a favor, PP se ha abstenido, y PNV y PSE-EE han sumado sus votos para finalmente tumbar la propuesta.

APLAZAMIENTO DE OBRAS FORALES

A continuación, en una comparecencia solicitada por EH Bildu, el diputado foral de Hacienda y Finanzas ha avanzado otras medidas adoptadas como consecuencia de la situación generada por el virus COVID-19. Con el propósito de reducir gastos, Iruarrizaga ha anunciado que su departamento aparcará el proyecto de mejora del edificio de Hacienda. Asimismo, ha informado de que el Consejo de Gobierno de la Diputación aprobará mañana un nuevo decreto con otras medidas y que el Gobierno plantea un “segundo escenario a partir de enero de 2021” donde se comiencen a aplicar otras iniciativas “más estructurales”.

Preguntado por los proyectos de “grandes infraestructuras” del territorio, Iruarrizaga ha respondido que la Diputación “no está dispuesta a interrumpir las inversiones de infraestructuras ya licitadas” o aquellas que supongan “proyectos estratégicos” para la Diputación. Sin citar ninguna, ha dejado la puerta abierta a que “quizás” se puedan estudiar los plazos de ejecución de algunas de ellas. Este panorama no va a ir en detrimento de otras cuestiones. “No vamos a dejar de gastar en temas sociales”, ha afirmado. En esta línea, el Presupuesto de 2020 se está “adaptando” ya para ejecutar el plan de medidas económicas incluidas en “Bizkaia Aurrera” y para dotar al departamento de Acción Social con recursos para que siga haciendo frente a los gastos derivados por la pandemia. Además, Iruarrizaga ha señalado que la Diputación se endeudará a partir del año que viene para cubrir su apartado de gastos y transferencias, después de confirmar un primer impacto en Bizkaia cifrado en “1.500 millones de euros”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asimismo, la comisión ha tratado también una proposición no de norma transaccional acordada por Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu para que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas se reúna “lo antes posible” con el objetivo de dar respuesta a la crisis profunda que está provocando el Covid-19 en Euskadi. Ambos grupos pedían que la Diputación presentara en las Juntas Generales de Bizkaia un informe de “impacto” del coronavirus; que abriera un diálogo con los grupos junteros y agentes sociales y sindicales para plantear “medidas más efectivas”, entre ellas “cómo incrementar los ingresos para garantizar el gasto, sin que suponga una merma de los derechos de la ciudadanía”.

La proposición no de norma se ha rechazado con los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y PP. Para adoptar medidas “concretas y estructurales es necesario tener un escenario más certero”, ha respondido el socialista Ekain Rico. “Hasta el mes de julio” no tendremos una fotografía, ha concretado Jon Andoni Atutxa.